

INFORMAZIO ZIRKULARRA: IPDB

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa enpresa guztiek nahitaez bete beharreko lege bat da. Betetzen ez bada, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak zehapen gogorrak jar ditzake, 900 eurotik 600.000 eurora bitartekoak.

Legearen arabera, izaera pertsonaleko datua da identifikatutako edo identifikatzeko moduko pertsona fisikoen gaineko edozein informazio. Horrek esan nahi du izaera pertsonaleko datua dela pertsona fisiko jakin bati buruzko datuak ematen dituen informazio oro, baita emandako informazioaren bidez pertsona identifikatzeko aukera ematen duena ere.

Gaur egun, edozein enpresak ditu izaera pertsonaleko datuak. Datu horiek bezeroenak izan daitezke, edota langileenak, adibidez, soldata-orrietan ageri direnak. Jende gehienak Legea ongi ezagutzen ez duenez, Espainiako enpresa gutxi batzuek bakarrik betetzen dute, baina kontuan izan behar da legea ez ezagutzeak ez duela hura betetzetik aste uzten.

Enpresa guztiek bete behar dituzte alderdi tekniko eta antolaketa-alderdi batzuk, datu horien segurtasuna bermatzeko. Hona hemen alderdi horien laburpen bat:

1. Egiaztatzea datuak egokiak direla, egiazkoak, haiek lortzeko modua bidezkoa izan dela eta duten helbururako modu proportzionalan tratatu direla.
2. Datu pertsonalen titularrei datu horiek jaso direla jakinaraztea.
3. Datu pertsonalak tratatzeko baimena lortzea.
4. Datu pertsonaletara sartzeko aukera ematen duten zerbitzuak ematen dizkiguten hirugarrenei dagokienez, datuetara sartzeko kontratu bat sinatzea, haiek babesteko.
5. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak erraztea eta bermatzea.
6. Sekretu- eta segurtasun-eginbeharrak betetzen direla bermatzea.
7. Fitxategiak Datuak Babesteko Erregistro Nagusian jakinaraztea eta inskribatzea.
8. Datuak babesteko arauz kontzientziaztea eta arau horiek zabaltzea eta hedatzea haiek gauzatu edo errespetatu behar dituzten langileen artean.
9. Aplikagarria den sektoreko legedian ezarritakoa betetzea, hala badagokio.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko Irailaren 20an
Isabel Barrios Holgado